

Azaroaren 18a, Behartsuen aldeko Munduko II. Eguna

Espainiako Gotzain Batzarrak eta Caritasek behartsu eta kalteberenen ondoan egotearen balioa deskubritzeko deialdia egiten dute

Frantzisko Aita Santuak egin du deialdia, eta aurten goiburu hau izango du:
«Behartsu honek oihu egin zuen eta Jaunak entzun egin zuen»

Madril, 2018ko azaroaren 13a – Bigarren urtez jarraian, Behartsuen aldeko Munduko II. Egunaren esparruan, Espainiako Gotzain Batzarrak eta Caritasek bat egingo dute deialdi honen Espainiako ospakizunarekin. Egun hori **Frantzisko Aita Santuaren** ekimenez sortu da eta mundu guztian ospatuko da, azaroaren 18an (igandea).

Egun hau sustatzearen idea 2016ko azaroaren 13an sortu zen, Errukiaren Urtea amaitzeaz zela eta San Pedro basilikan Aita Santua marjinatuei eskainitako Jubileua ospatzen ari zela. Bat-batean, sermoia bukatutakoan, Frantziskok hau adierazi zuen: “gaurko eguna «Behartsuen eguna» bihurtzea nahiko nuke”.

Ospakizun hau urtero egiten da Eliza unibertsal osoan, Kristo Erregearen jaiaren aurreko denbora arrunteko azken igandean, XXXIII. igandean. Aukera paregabea da behartsuenek komunitateen bizitzan duten protagonismoa agerian jartzeko.

Behartsuen aldeko Munduko II. Egun honen goiburua («*Behartsu honek oihu egin zuen eta Jaunak entzun egin zuen*») 34. salmotik hartua dago. Frantziskok egun horretarako prestatutako mezuan esan bezala, hitz horiek gureak bihurtzen dira senide askok eta askok (normalean “behartsu” esaten diegunak) jasaten dituzten sufrimendu- eta marjinazio-egoerekin topo egitera deituak garenean.

Hiru hitz gako

Aita Santuaren mezuak hiru hitz gako ditu, eguna prestatzeko eta animatzeko orduan kontuan izan beharrekoak:

- «Oihu egin»: sufritzen duenaren oihu edo aldarriak gure isiltasuna behar du, hari harrera egiteko eta entzuteko.
- «Erantzun»: Jaungoikoak gizateriaren historian erantzun eta esku hartu du, zauriak sendatuz, justizia berrezarrit eta bizitza duintasunez bizitzera bultzatuz; eta gu, bere Eliza, Jaungoikoren Herria, gonbidatzen gaitu modu berean erantzutera, samurtasunez eta errukiz.
- «Askatu»: gehien sufritzen dutenak salbatzeko, harrera egiteko, babesteko, laguntzeko eta integratzeko.

Egun honen helburuak

Gotzain Batzarrak eta Caritasek gogorarazten dute ospakizun honen helburu nagusietako bat dela gure komunitateetako pertsona behartsu eta kalteberenen ondoan egotea, igandeko otoitz komunitarioaren eta bazkariaren bidez (eukaristia-oturuntza), familian partekatutako mahaiaren adierazpen gisa.

Horrez gain, azpimarratzen dute denok gonbidatuta gaudela Jesusen irakaskuntzekin pertseberatu zuen lehen kristau komunitatearen ereduari jarraitzea, jaunartzeari, ogia zatitzeari eta otoitzei dagokienez. Hala, elkarrekin bizitzen eta ondasunak partekatzen ikasi behar dugu, haiek egiten zuten moduan, inork ere premiarik izan ez zezan (Eg 2, 42. 44-45).

Ildo horretan, garrantzitsua da Frantziskok bere mezuan kritikatzeko duena. Aitortzen du askotan pentsatzen duela ekimen asko, txalogarriak eta beharrezkoak izanik ere, geure buruak asetzeagatik egiten direla, eta ez behartsuaren aldarriari erantzuteagatik. Era berean, salatzen du erabat harrapatuta gaudela ispilura begiratzera eta gehiegi zaintzera behartzen gaituen kultura batean, eta uste dela altruismo-keinu bat nahikoa dela gustura geratzeko, zuzenean konprometitu behar izan gabe.

Horregatik, Behartsuen aldeko Munduko Egunaren bidez erantzun txiki bat eman nahi die Eliza osoak, mundu osoan barna, mota eta leku guztietako behartsuei, euren oihua hutsean geratu dela pentsa ez dezaten.

Eliza pobreziaren erronkekin konprometituta

Deialdi honen harira, Elizak balioa eman nahi dio pobreziaren aurkako borroka bere ebanjelizatze-misioan duen garrantzi estrategikoari, milaka parrokia-komunitatetan, elizbarrutietan eta karitatezko erakunde sozialetan, hala nola Caritasen, gauzatzen den pastoralgintzak osatua.

Gotzain Batzarraren azken jarduera-memorian jasotako datuen arabera, estutasun-egoeran zeuden 4,7 milioi pertsonari baino gehiagori eman zitzaizkien laguntza eta arreta Elizak Espainia osoan dituen 9.110 gizarte- eta laguntza-zentroetan.

Hedapen-materialak

Gotzain Batzarrak eta Caritasek zenbait material prestatu dituzte Behartsuen aldeko Munduko II. Eguna ospa dadin Espainiako parrokia eta komunitate guztietan. Materialak [Espainiako Gotzain Batzarraren](#) eta [Caritasen](#) webguneetan eskura daitezke.